

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 90/2024 Mozioa, urriaren 21ekoa, Oreitian Alavabusen 5. lineako foru-garraio publikoaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Batzordeak, 2024ko urriaren 21ean egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

90/2024 Mozioa, urriaren 21ekoa, Oreitian Alavabusen 5. lineako foru-garraio publikoaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Oreitiako Administrazio Batzarrarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera egin beharreko ekintzak egin ditzala, Oreitiako bizilagunei garraio-zerbitzu publiko eraginkorra, segurua eta irisgarria eskainiko dien irtenbide bat hartzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Mugikortasun Jasangarriaren II. Planaren proiektuan deskribatutako Alavabuseko geralekuak lurralde osoan modernizatzeko neurriak gara ditzala, oinarrizko azpiegitura, informazio-sistemak eta markesina eta geraleku-zutoin berrien instalazioa egokituz, eta haien ikuspena eta argiztapena hobetuz, segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin, kontuan hartuta plan horri aurkeztutako alegazioak, baita finantzaketa egokia eta jarduketak planifikatzeko kronograma bat ere.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 21a

*Lehendakaria*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*